

Arrasate

PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 30a / 631. zenbakia

Bertso Jaialdia

AEDko Bertsolaritza Saila sortu
dute, eta bertsozaletasuna
pizteko lanean hasi dira.
Zapatuan jaialdia antolatu dute

ORAIN ETA HEMEN: ESLEITUTA ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZAK/9 • KIROLA: MENDI ASTEA/11

ITURRIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

OSASUN GIDA/2



Edertasun Gida

Hanka ederrak

Udaberri-uda denboraldi honetan gona motza berriro ere modan dago; hortaz, zure hankak puntuan jarri beharko dituzu: latzak eta sikuak baldin badituzu, egiezu peeling leun bat azala bustita duzula, zelula hilak eta ezpurutasunak kentzeko; egunero masaje on bat emaezu krinezko eskularru batekin, era zirkularrean eta gorantz; eta badakizu, egunero-egunero eman ezazu krema hidratatzaile piloa, leuntzeko eta hidratatzeko.

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

BITXORI

ileapaindegia



Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa



KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA/ Zeure ingurukuek badaukie alergixarik? Geruago eta alergiko gehixago dauz?



OLATZ LÓPEZ
Ikasle

Neuk ez dauket alergixarik, baiñe neure lagun batzuk badaukie eta txarto ibiltzen die. Ez die mendire jueten eta mediziñak hartzen ditue. Bai, geruago eta alergiko gehixago dauz.



JUAN JOSE URIBARREN
Jubilae

Familixan, loiba txikixek daukie alergixie. Sasoi honetan nahiko txarto jarten die eta mediziñak hartu biher izeten daue. Lehen, jentiek ez eukien alergixarik, eta oin badauko, haundituz doie.



MARI CARMEN MENDIARATX
Langillie

Udaberrixekin ez daukogu problemarik, baiñe famili-xako batek arraiñari dutzo alergixie. Arraiñe kongelau egin biher dau, gero jateko. Alergixa hori erueteko erre-xague da.



PEDRO DONOSO
Jubilae

Bai, familixako batzuk polemari dutzie alergixie. Ezin die mendire juen eta kalien be txarto pasetan daue. Geruago eta alergixa gehixago dago, kontaminaziñuan eragiñez-edo.



MIKELE ALBERDI
Langillie


Ez dauket ez familixan ezta inguruen alergixarik daukon iñor. Egixe da geruago eta alergixa gehixago daue. Ez dakit poluziñuagatik izengo dan, baiñe geruago eta alergiko gehixago dauz.



ASIER KORTABARRIA
Langillie

Nik neuk polen klase bati dutzet alergixie, eta horrek asmari be eragitten dutzo. Asmarako tratamendue hartzen dot, baiñe bestela bizimodu normala egitten dot, mendire jueten naz...

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZUBITIK HARRIKA Badirudi Arrasateko gazte batzuek ez dutela autoei harriak botatzea baino zeregin hoberik. Horretarako Gernika Oinezkoen Zumardiko zubira joaten dira, Bizkaia etorbidearen gainean dagoena, eta harriak botatzen ibiltzen dira behetik pasatzen diren autoei. Aste honetako txistuak eurendako, beste zerbaite ez ematearren. Hobe dute argi ibili. /ARRASATE PRESS

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 9

KULTURA / 14

ZAHARRAK / 17

Azoka plazako saltokiak

Azoka plazako saltoki finkoak eta bereziak esleitze-ko lehiaketa zabaldu dute. Guztira 10 saltoki.

XVI. Arrasate Lehiaketak

Atzo, eguena, AEDko epaimahaiak aditzera eman zuen XVI. Arrasate Lehiaketako epaia.

Aldez aurretiko borondatea

Maiatzean jarri dute indarrean bizi-testamentuaren edo alde aurretiko borondatearen legea.

ASTEKO DATUA

476

ETXEBIZITZA SOZIAL ERAIKIKO DITUZTE

Guztira 476 etxebizitza sozial eraikiko dituzte Zerrajera inguruan; batzuk alokairuan hartzeko eta beste batzuk lurrazal eskubide gisa erabiltzeko. Denek ere kontrolatutako prezioa izango dute.

BESTEKEESANA

“ Eurovision-eko galan oso ondo pasatu genuen. Ez neukan itxaropen handirik, baina uste baino giro hobea egon zen, jende mordo... Azkenean, oso ondo pasatu nuela aitortu behar dut (...). Barrutik ikusi genuen, gainera eszenatokitik nahiko gertu geunden, 14. edo 15. ilaran. Ez nuen uste sarrerak lortuko genituenik, baina lagun batek eskuratu zituen (...). Gala jesarrita ikusi genuen. Tarteka, zutitu egiten ginen eta oso bitxia zen: segurtasunekoek esertzeko agintzen zuten. Hala ere, bukaeran jende guztia dantzan jarri zen (...). Lagunak eta ni neu alkondararekin eta bakeroekin joan ginen, beste asko moduan. Letoniakoak, oster, oso dotore joan ziren. Azkar antzematen zen hangoak zirela”.

JOSU TORNAY
ARRASATE IRRATIA/03-05-27

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Ez dizuet sinisten

Duela aste batzuk aurkeztu zen pentsamendu kritikoaren sustapenerako talde baten hitzak hartu gura ditut ahotan. Tabernako barran aurkitu nuen orriak zera zioen: *Pentsatzea debekatua, sinistea derrigorrezkoa?* Pentsatzea eta sinistea askeak direla esaten zaigun aro honetan, errealitateari bete-betean hurbiltzen zaizkion hitzak iruditu zitzaizkidan hauek, edozein diskurtso, ideia, eztabaida, zalantza, sinismen edo eredu saldu nahi baitzizkigute.

Testuinguru bertsuan ospatu dira pasa den igandeko hauteskunde *demokratikoak*. Demokrazia honetan sinistu baitute askok eta askok. Neuk ere, “demokraziaren belaunaldietako gazte pribilegiatu baten gisan” (Aznar, sic), neure bozka eman nuen. Hala ere, balorazio eta juzku elektoral ororen ginetik (datu irrealak baloratzeak lotsatzen bainau), izaera bakarra

antzman nien hauteskunderi: putxerazoa. Aspaldian hasitako erasoen ondotik, baldintza antidemokratikoetan ospatu baitira hauteskundeak, herritarren egiazko borondatea errespetatu gabe, bidezkoak eta zilegiak izan gabe. Bozka, eserleku eta portzentaje

“Bozka, eserleku eta portzentaje ororen ginetik jazarpena, debekua eta ukazioa izan dira hauteskunderen ezaugarriak”

ororen ginetik jazarpena (eta honen onarpena), debekua eta ukazioa izan dira hauteskunde hauen ezaugarri nabarmenenak.

Ez dira hautesle on eskubideak bermatu, bozka erabakitze

askatasuna baldintzatua izan baita. Horretaz gain, duintasun eta eskubide osoz bozkatu duten milaka herritarri ukatu zaio ordezkaria izateko eskubidea. Zirkunstantzia hauetan *demokraziak* eserlekuak eman dizkizuen horiei guztiei hausnarketa, errespetua, koherentzia edo lotsa dosi bat agian eskatuko nizueke. Egingo den politika orok zilegitasuna galdu baitu. Ez dizuet sinisten.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 30**
Azkoaga: Iturriotz 943 79 79 99
- ZAPATUA, 31**
Corcuera: M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
- DOMEKA, 1**
Irizar: Erguin 11. 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 2**
Amezua: Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 3**
Zabala: Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 4**
Ruiz: Maala 31 943 79 14 09
- EGUENA, 5**
Español: Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 6**
Azkoaga: Ferrerías 5. 943 79 15 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzaila 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

- EGUENETAKO ZINEKLUBA**
Ekainaren 5ean, eguenean, *Bloody Sunday* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.
- TRONPETA KONTZERTUA**
Ekainaren 4an, eguaztenean, ikasleek tronpeta kontzertua egingo dute Arrasate Musikaleko eskolan, 19:15ean.
- AL-ANDALUSEN ASTEA**
Bihar, zapatua, Al-Andalus elkarteko Kultura Astearen egun handia ospatuko dute: koru errozieroak, dantza taldeak eta herri afaria izango dituzte.

- ERRETIRATUEN BAZKARIA**
Bihar, zapatua, Arrasateko erretiratuek urteroko bazkaria izango dute Musakolako kiroldegian. Bazkaria 14:30ean izango da eta erdialdetik -Garibaitik- Musakolara joateko autobusak egongo dira.

- BERTSO JAIALDIA**
Bihar, zapatua, AEDko Bertsolaritza Sailak jaialdia antolatu du Monterron parkean. 22:30ean, Andoni Egaña, Jon Maia, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze izango dira taula gainean. Sarrerak hiru euro balio du, eta aurretik honako salto-kietan eros daiteke: Hiren, Iratin eta AEDn.

AEDrenAGENDA

- 'EGUNKARIA'-REN ALDE**
Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko herri batzordeak lanean segitzen du. Parte hartzeko interesa duenak jo dezala AEDra. Gaur, egubakoitza, Basati tabernan *Egunkaria*-ren aldeko bideoa aurkeztuko dute, 18:00etan. Eguenetan eta egubakoitzetan, 18:00etatik 20:00etara, Arbolapetan *Egunkaria*-ren salmahaia jarriko dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Uarkapeko horma egiteko eskatu zuten


Uarkapeko etxeak erosi zituztenek Udalarari horma egiteko agindua eman zezan eskatu zioten. Horiez gain, Altamirako, Makatzeko, erdialdeko eta inguruetako bizilagunek eta Mese-deetako Amako guraso elkarteak mozioak aurkeztu zituzten Udaleko osoko bilkuran.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zartiau"

Zartatu, pitzatu, arrailatu.
— *Mutikotan, neguan, esku-gaiñ guztiak zartiauta eukitzen giñuzen.*
— *Etxe zar aretako paretak danak zartiauta dare.*
— *Pinturia zartiauta dauka ire kotxiak.*




GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Inguruko herrietako webguneak

Amaia Leibar arrasatearrarekin egin dugu berba, asteon, ibarreko hainbat udalek Interneten jarri dituzten webguneen gainean. Amaiak Goienako Telematika Sailean dihardu lanean, eta, hain justu, Goienak kudeatzen ditu Elgetako, Eskoriatzako, Bergarako eta Aramaioko web atariak, eta Aretxabaletakoan albisteak sartzen ditu. Atari bakoitzean zer aurkitu konstatuko digu. Aitzol Aramaio zinemagilearekin ere egon gara. Iraganean Arrasaten bizi zen.



Fusilatuen eta desagertuen omenez

Ekainaren 8an omenaldia egingo diete ibarrean, Espainiako gerraren garaian, fusilatu zituztenei, baita desagertu zirenei ere. Hori dela eta, Juan Ramon Garairekin egingo dugu berba eguenean, hilaren 5ean, 09:30ean. Horrez gain, Octubre taldeak kaleratuko duen liburu berriaren gainean ere egingo dugu berba Juan Ramon Garairekin. Ohiko atalak ere egongo dira: esaterako, burtsa eta ekonomiaren gainean egingo dugu berba Rafael Kortabarriarekin.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 21	5 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 23	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	27,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	24 °C	5 °C	- l/m ²
Eguena, 22	31 °C	6 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 23	32 °C	7 °C	1,6 l/m ²
Zapatua, 24	18 °C	12 °C	9,9 l/m ²
Domeka, 25	15 °C	10 °C	16,2 l/m ²
Astelehena, 26	16 °C	10 °C	- l/m ²
Martitzena, 27	20 °C	9 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efemerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tarteak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 **Txortxorien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 **Planing Prest:** Deliane Arrieta

ZAPATUA
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Aitzol Aramaio zinemagilea, Amaia Leibar, Rosi Agirreurreta izozki saltzaile ohia...

DOMEKA
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Kultura Astea Al-Andaluzen

Aste honetan makina bat kultura ekitaldi prestatu dituzte Al-Andaluzen. Bertara gerturatzeko aukera izan duenak Andaluziako folkloreak gozatzeko aukera izan du.

Joan den zapatuan hasi zituzten Kultura Asteko ospakizunak. Zapatu gauean *play-back* jaialdia egin zuten, eta asteburu osoan ez zuten deskantsatzeko astirik izan. Astelehena umeendako eguna izan zen, eta pailazoak joan ziren bisitan. Egun garrantzitsuena zapatukoa izango da, bazkide afaria izango dute-eta elkartean. Besteak beste, sevillana erakusketa izango da, eta abeslariak ere izango dira. Herritar guztiok zaudete gonbidatuta.

Kultura etxeko lanak

Arrasateko Udalak 200 mila euro eskatu dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, kultura etxe berriaren obrekin jarraitu ahal izateko. Ospitale zaharraren hormak uste baino dezente okerrago daude eta ezin dute zutik iraun obra garrantzitsu bat egin gabe.

Udalaren asmoa orma horiek botatzea bazen ere, diputazioak horma bat baino ez die utzi botatzen. Udalak ezin du obra berrien gastuei aurre egin, eta 200 mila euro eskatuko dizkio Foru Aldundiari, lanekin jarraitzeko.

MCCren VIII. kongresua

Mondragon Korporazio Kooperatibak zortzigarren kongresua egin du aste honetan. Kongresuan Korporazioak argi utzi du ahaleginak berrikuntzetara bideratuko dituela. Horrez gain, beste gai bat ere landu dute: sozietate-hedapen politika. Atzerriko enpresetan besteren konturako langile ugari ditu Mondragon Korporazioak eta politika horrek, atzerrian Korporazioaren eredu sozio-enpresarialarekin bat etorriko den garapena ahalbideratuko du.



Elkartasun Eguna zapatuan

Arrasateko gobernuz kanpoko erakundeek Elkartasun Eguna ospatu zuten zapatuan. Besteak beste, Harreman, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabeko Ingeniariak eta Caritas taldeek ipini zituzten saltokiak. Jasotako diruarekin elkartasun proiektuak finantzatzeko dituzte.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Indar metaketa

Hauteskundeak igaro dira eta, egia esanda, ez dira hauteskunde ezta emaitza onak izan. Aukera politiko bat legez kanpo gelditu da eta horregatik bakarrik ezin da ontzat hartu. Ez da bidezkoa eta hori azpimarratu beharra dago, askok ahaztu duten arren. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, aspaldiko partez, EAJ-EAk Udale-

ko alkatetza eskuratu du. EAJ-EAk hautagaiak goitik behera aldatu ditu eta 9 zinegotzi lortu ditu. Boto gehien jaso duen bigarren indarra Herri Anitza izan da, baina instituzioetako joko politikotik kanpo utzi dute. PSE-EE indartu egin da, PPren akats eta gehiegikeriez baliatuta. Sorpresa handienak Aralar eta Ezker Batua izan dira. Aralar

lehenengo aldiz aurkeztu da eta bi zinegotzi lortu ditu. Hemendik aurrera ikusiko dugu zelan egiten duten lana. EBri dagokionez, erakutsi duten malgutasunarengatik, zinegotzi batetik hirura salto egin dute. PPK zituen bi zinegotziak mantendu ditu.

Ekainaren 14an udalbatzarra osatuko dute. Kontuan hartuta herriko indar politiko bat instituzioetatik kanpo utzi dutela, erantzukizun handia dute horien parte-hartzea errazteko.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDEKO BESTE OIHU BAT

Orain dela bi aste hasi zen *Egunkaria*-ren Aldeko Arrasateko Batzordea margolan hori egiten, baina ez da bakarria, Institutu ondoan dagoen horman ere beste margo bat egin dute-eta. Musakolako kiroldegi ondoan dagoen margoa martitzen arratsaldean amaitu zuten, eta gaur amaituko dute Institutu

ondoan dagoena. Hainbat hilabete pasatu dira *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik, eta dagoeneko abian dago proiektu berria. Hala ere, adierazpen askatasunaren aldeko beste oihu bat egin gura izan dute *Egunkaria*-ren Aldeko Batzordekoek, eta entzun baino gehiago, argi ikusten da oihua. /X.U.

Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

HAUTESKUNDEAK/ Maiatzaren 25ean hautesleketan bizi izandakoaren kronika


Hurrengo agintaldian bederatzi zinegotzi izango ditu EAJ-EA koalizioak

ARRASATE PRESS

EAJ-EA koalizioa izan da ezohiko hauteskunde hauetan boto gehien eskuratu dituen taldea. Boto kopuruetan, PSE-EEK aurrekoari eutsi dio eta PPK ehun boto galdu ditu. Ezker Batuak nabarmen egin du gora, eta Aralarrek mila boto pasatxo eskuratu ditu. Kaltetuena, baina, Herri Anitza plataforma izan da.

Hauteskunde eguna uste genuen baino lasaia izan zen; Arrasaten, behintzat. Goizeko bederatzietan ireki zituzten eskolak, eta eguna beste kontu batzuk egiteko aprobetxatzeko asmoa zutenek goizeko lehenengo orduetan eman zuten botoa. Arrasateko hautagai gehienek ere goizean goiz eman zuten botoa.

Inazio Lakuntza izan zen goiztiarrena: 09:30ean eman zuen botoa, Urribarrin. Xabier Zubizarretak, berriz, 09:45ean eman zuen botoa. Eta ordu hori bera aprobetxatu zuten Udala auzoko mojek eta abadeak botoa emateko. Bestalde, Paco García, PSE-EE alderdiko zerrendako bigarrena, aitarekin joan zen botoa ematera; goizeko hamarretan izan zen hori, Ferixalekuko gunean. Joseba Ugaldek, Ezker Batuak lehenak, besteek baino presa txikiagoa izan zuen, eta goizeko hamarretan ikusi genuen Ferixalekuan. Urduri zegoela aitortu zigun Josebak, baina Aralar alderdiko hautagai Joxe Etxeberria ere ez zegoen askoz lasaia-




EAJ-EA
INAZIO LAKUNTZA



EAJ-EA
Javier Maria Nafarrete




EAJ-EA
Agustin Ugarte



EAJ-EA
Luis Etxebarriarteun



EAJ-EA
Andoni De Bedialauneta



EAJ-EA
Bixente Inazio Etxeberria



EAJ-EA
Aitor Sáez de Azkunaga



EAJ-EA
Ines Aldai



EAJ-EA
Nestor Arana



PSE-EE
Blanca Roncal



PSE-EE
Paco García




PSE-EE
Matilde Martín



PSE-EE
Ismael González



PSE-EE
Isaias Garrasco



IU-EB
Joseba Ugalde



IU-EB
Ander Rodriguez



IU-EB
Jose Antonio Baz



PP
Itziar Lamarain



PP
Antonio Palacios



ARALAR
Joxe Etxeberria



ARALAR
Felix Hernández

go, eta gizon lasaia da Joxe. Goizeko hamarretan ikusi genuen Ferixalekuan, baina aspaldi eman zuen botoa.

Gainerako arrasatearrek ez zuten inongo presarik izan botoa emateko. Eguerdik partean mondragoetar asko hurreratu zen hautesleketara, eta hautesleak itxi baino hamar minutu lehenago ere jende asko zebilen

botoa eman guran. Gero, hautesleak itxi eta boto zenbaketa hasi zen. Bestetan baino denbora luzeagoa behar izan zuten lan hori egiteko, baliogabeak botoak sinatu egin behar ziren-eta. Arrasaten herri plataformak ez zuten arazorik izan Herri Anitzaren botoak zenbatzeko, baina ondoko herri batzuetan gauzak bestelakoak izan ziren.

BOTOEN BANAKETA UDALAN ETA BATZAR NAGUSIAN

EAJ-EA koalizioa 4.667 botorekin talde botatuena izan da. Herri Anitzak 2.716 boto eskuratu ditu, eta legez kanpo egongo ez balitz, herriko bigarren indarra izango litzateke. Batzuek ez dute aukera bera egin Udalerako edo Batzar Nagusietarako bozkatzerakoan.


	Udala	Batzar Nagusia
EAJ-EA	4.667	4.933
HERRI ANITZA/AUB	2.716	2.636
PSE-EE	2.375	2.364
EB-IU	1.438	1.363
PP	1.262	1.317
ARALAR	1.057	908

UDAL HAUTESKUNDEETAKO BOTOEN BANAKETA AUZOZ AUZO

Arrasateko hautesleketan hartutako datu horiek argi erakusten dute herriko zona bakoitzean zein alderdik duen indar handien. Izan ere, herri erdialdean eta Urribarrin indartsu ageri da EAJ-EA koalizioa; eta Santa Marinan, berriz, PSE-EE da nagusi.

	Erdialdea	Santa Marina	Musakola	S. Andres	Urribari	Auzuneak
EAJ-EA	2.019	235	556	625	1.048	194
H. ANITZA/AUB	1.047	176	378	350	691	74
PSE-EE	388	536	238	489	706	18
EB-IU	368	262	166	238	392	12
PP	302	209	138	282	287	44
ARALAR	442	45	91	129	317	33

UDAL HAUTESKUNDEAK




2003ko errolda: 19.835 / Abstentzioa: 6.101 (%30,7)


ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

Zinegotziak galduko lituzkeen bakarra Herri Anitza plataforma izango litzateke. Hala ere, legez kanpo utzi duten plataformak EHk Legebiltzarretarako hauteskundeetan lortutako boto kopuruari eutsi egin dio.


	2003	1999
EAJ-EA	8	6
H. ANITZA	4	8
PSE-EE	4	4
EB-IU	2	1
PP	2	2
ARALAR	1	-



Hauteskundeetan aldarrikapenerako astia ere izan zen.



Mahaietan egon zirenek buru-belarri egin zuten lan, eguerdian batez ere.




Abadeak goizeko lehenengo ordua aprobetxatu zuen botoa emateko.



Ertzainak beharrean, aurten udaltzainak izan dira eskola askotan zaindari lanetan.




INAZIO LAKUNTZA
EAJ-EA



XABIER ZUBIZARRETA
Herri Anitza




BLANCA RONCAL
PSE-EE



JOSEBA UGALDE
EB-IU



ITZIAR LAMARAIN
PP



JOXE ETXEBERRIA
Aralar

Balorazio positiboa baino ezin dugu egin, lehenengo indarra gara-eta. Berba egiteko asmoarekin goaz Udalera, akordioak lortzeko egingo dugu lan, eta nahiz eta legez ezin dugun ezer egin, ahots barik geratu direnek ahotsa izan dezaten mekanismoren bat bilatu behar dugu. Arrasate aurrera ateratzeko denok egin behar dugu lan.

Hauteskundeek zilegitasun osoa galdu dute. Gizarte zati bat politikoki erbestera egin dute. Hala ere, izan ditugun zailtasun guztiekin, gure hautesleek izugarriko koherentzia erakutsi dute. Orain zeregin bi ditugu: herrigintzan lan egin eta indar politikoekin gutxieneko adostasunak lortu. Euskal Herrian testuinguru berria lortzeko.

Gu oso pozik geratu gara domekan lortutako boto kopuruarekin. Hauteskunde kanpaina esan bezala, Udalean egongo diren gainerako alderdiekin lankidetzan jarduteko gertu gaude. Elkarrekin bizi gara, eta politikoak izan behar gara bizikidetzatza behar dugun lehena. Azken baten, eredu garri izan behar dugu.

Oso balorazio positiboa egin dugu. 1999ko udal hauteskundeekin alderatuta 600 boto gehiago atera ditugu. Orain hiru zinegotzi ditugu. Hala ere, badakigu bat Herri Anitzaren legez kanporatzearen ondorio dela. Gertu gaude gobernuan jarduteko, baina EAJ-EAK eman beharko du lehenengo pausoa, eta aztertu egin beharko dugu.

Emaitzen balorazio ona egin dugu. Espainiako Estatuan gure aurka egon den kanpaina kontuan hartuta, emaitzak onak izan dira. Arrasaten zinegotzi biei eutsi egin diegu. Hemendik aurrera Arrasateri eta Debagoienari lehentasuna eman gura diegu. Hausnarketa sakona egin gura dugu, eta lan handiagoa egingo dugu.

Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin, eta erreferentzia modura ere balio digu. Aurrerantzean izango dugun giroa kanpoan gertuko direnek erabakiko dute. Nik eurekin berba egin gura dut, eta ea akordiorik egiten dugun. Ez dakit herriko taldeetan lanean segituko duten edo lau urteko konplota egingo duten.

HIRIGINTZA/ Osoko bilkura

Luzea eta eztabaidatsua izan zen martitzeneko batzarra

ARRASATE PRESS


Luzea eta eztabaidatsua izan zen martitzeneko (hilak 20) osoko bilkura. Besteak beste, EAJK 18 alegazio aurkeztu zizkion Egitamu Orokorren gaineko puntuari. PSE-EEko ordezkariak, berriz, alde egin zuten. Gaiak onartu egin ziren.

Batzarra hasi baino lehen PSE-EE alderdiak adierazi zuen aretoa utzi egin behar zuela. Euren esanetan, batzarrean dudazko legalitatezko erabakiak hartu behar zituztelako eta kanporatze kotan dagoen udalbatzarrak ez duelako legitimitaterik. Bestelako puntu batzuk ere kritikatu zituen, adibidez, mozio ilegal bat onartzea proposatzen zaiela (EHN Arena). Idatzia irakurri eta gero alde egin zuten.

Horren ostean hasi zuten batzarra, aretoan batu zen herritar talde dezente handiaren aurrean. Eta, ez zen aipatzeko ezer gertatu harik eta 13. punturaino iritsi arte (Egitamu Orokorrekin lotutako puntua). Izan ere, EAJK 18 emendakin aurkeztu zizkion puntu horri; eta emendakin bakoitza banan-banan bozkatu zuten. Ez zen puntu bat bera ere onartu, baina, Jose Mari Loitik behin eta berriro azaldu zuen bere alderdiaren desadostasuna, batez ere, desjabetzearen formula dela-eta.

KULTURA ETXEA

Bestalde, kultura etxe berriaren lanek ere eztabaida piztu zuten EAJren eta ASaren artean. Kontua da eraikinaren egoera eskasa ikusita, hormak botatzea zela Udalaren asmoa. Baina, Diputazioak debekatu egin zuen hori, eraiki-



Alderdi sozialistak aretoa utzi zuen batzarra hasi eta berehala.

naren balio historikoa dela-eta. Hala, hormak bota barik lanekin aurrera segitzea erabaki zuten. Jose Mari Loitik, berriz, lanok garestiegiak direla-eta, geratzea eskatu zuen: "Ezin da onartu hiru hilabetez lanek jarraitzea aurrekontua gorantz doala jakinda".

Horren aurrean, Xabier Zubizarreta alkateak bestelako iritzia dauka: "Horma horiek dauden moduan egonda, segurtasuna behar dute, arrisku fisikoa suposatzen dute-eta. Eta segurtasun hori oso garestia da. Hortaz, uste dut merezi duela lanekin segitzea negoziatzen jarraitzen dugun bitartean. Eta gero, hormak ezin badi- ra zutik mantendu, bota egingo ditugu".

EHNA EGIN DAITEKE UDALAN

Hortik aurrera, ez zen bestelako-

rik izan azkeneko bi mozioetara iritsi arte. Bata, ASAk aurkeztuta, Udalbiltzaren kontrako operazioa salatzeko eta Udalbiltzaren sorreran bere egindako ardatzak berresteko mozioa zen. ASAk, aldaketa txiki batzuk egin zizkion mozioari, eta EAJren, EAren eta ASaren aldeko botoekin onartu zuten.

Bigarren mozioa EHNaren gainekoa zen. Arrasateko Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztu zuen eta, besteak beste, mozio horren onarpenarekin, EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Agiria) Arrasateko Udalean tramitatu ahal izango da. EAJren eta PPren kontrako botoekin onartu zuten mozioa. Hala, irainka erantzun zieten osoko bilkuren aretoan batutako herritar askok PPren eta EAJren kontrako botoei.

HIRIGINTZA/ Musika Eskola

Zerrajeran, 1.200 m²-ko etxabea, Musika Eskola

Arrasateko Udalak Musika Eskola berria egokituko du. Hain zuzen ere, Zerrajerako etxebizitzaren etxabea egokituko dute Musika Eskolarentako. Eta, gero, han jardungo dute musikarekin lotutako herriko zenbait elkartetak eta taldeak; Arrasate Musikalek, adibidez.

Edozelan ere, oraindik hasi besterik ez dira egin proiektu horrekin. Izan ere, orain, proiektua idazteko laguntza teknikoak esleitzeko tramiteekin dabilta. Lau hilabeteko epea dute horretarako.

Behin hori eginda hasi ahal izango dira eraikitze lanak egiten. Arrasateko Udalak aukeratu-

tako etxabeak 1.200 metro koadro ditu. Eta, honako banaketa egin gura du: musika-instrumentuendako 20 gela; beste zazpi gela entsegu kolektiboak egiteko; bi gela musika eta mugimenduarendako; beste bat perkusio-instrumentuendako; irakasleendako gela bat; zuzendariarendako bulegoa; administrazioa eta idazkaritza; biltegia eta artxiboa; biblioteka-fonoteka; auditorioa, eta, jakina, komunak eta aldagelak.

AUDITORIO HANDIA

Aipatutako gelei dagokionez, Udalak zehaztu du auditorioa gutxi gorabehera 50eko lagun taldeek

entseguak egiteko baliozkoa izan behar dela. Izan ere, Arrasate Musikaleko bandak eta orkestrak han egin beharko dituzte entseguak.

Horrez gainera, kontzertuak auditorioan egingo direla jakinarazi du. Hortaz, hilean behin 60 bat ikusle elkartuko direla han, eta urtean hirutan beste 150.

Bukatzeko, auditorioak manpara baten bitartez banatzeko aukera izan behar duela ere badio, entseguetarako eta balet eskolentarako erabili ahal izateko. Hain zuzen, proposamena da zati horretan kokatzea gero, kontzertuetara doazen ikusleak.

LABUR

San Josepe harrobian industrialdea sortzeko egitamua onartu du Diputazioak

Oraingo asteko Gobernu batzordeak jakinarazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onespina eman dio San Josepe harrobiaren Zatiko Planari.

San Andres auzotik gertu dagoen harrobi hark 92.164 m²-ko azalera dauka. Eta, Udalaren asmoen arabera, industrialdea egingo dute. Guztira, lau partzela industrial sortzea da helburua.

Hori bai, Diputazioak zenbait baldintza ipini dizkio Udalarari. Adibidez, Hiri Antolaketa Alorreko Planean ezarritako lurzatiaren gutxieneko frontea bete behar dute. Eta, Udalak hilabeteke epea izango du Diputazioari udalbatzarrak onartutako Tesu Bateratua aurkezteko.

AUKEAk zenbait lan egingo ditu Uarkapen eta Musakolako kiroldegian

Musakolako kiroldegiko atsedeen gela ixtea proposatu du AUKEAk. Izan ere, udan kanpoko igerilekuetatik atsedeen gelara eta hortik gaitzeko kirol instalazioetara sartu egiten da jendea. Hori ez gertatzeko itxi gura dute gela. Lanok Pazi-Ola enpresak egingo ditu, 3.900 euro pasatxotan.

Horrez gainera, Uarkapeko boulderra handitzea proposatu du AUKEAk. Eta, Udalak Kroma Climbing enpresari esleitu dizkio lan horiek. 2.700 euro pasatxo inbertituko dituzte lanok egiten.

Egoera eskasean daudela-eta, Polmetasako zuhaitzekin zer egin erabaki beharko dute

Navas de Tolosa kaleko auzotarrek jakinarazi diote Udalarari Polmetasako lursailean dauden zenbait zuhaitzen egoera oso eskasa dela eta jausteko zorian daudela. Eta, hori arriskutsua izan daitekeela herritarrendako. Horren aurrean, Udalak erabaki du hilabeteke epea ematea Polmetasari zuhaitz horien egoera aztertzeke. Eta behin hori eginda, zer egin erabaki beharko dute: zuhaitzak kentzeko, inausi... Bitartean, segurtasun neurriak hartuko dituzte.



Alkatetza eta erretiratuen etxe berria Musakolan

UBANE MADERA

Musakola auzoko Maisuen Etxean lanak egingo ditu Udalak. Asmoa da han ipintzea auzoko alkatetza eta auzoko erretiratuen etxea. Orain, proiektua idazteko aurreneko pausoa eman dute.

Musakolako Auzogunea izena ipiniko diote Maisuen Etxean egin gura duten auzotarrendako guneari. Goian esandako moduan, eta gaur egungo beharrik kontuan hartuta, auzoko erretiratuetako egoitza eta Musakolako alkatetza ipini gura ditu Udalak San Antolin ikastetxearen eraikin hartan.

Hala, auzoko alkatetzak hona-

ko elementu hauek izango ditu: bulego bat, batzar gela bi, trastelekua eta komunak.

Eta, erretiratuen etxeak, berriz, honako elementuok: batetik, taberna, taberna-egongela eta sukaldea, batetik; eta, bestetik, ez erretzaileendako gunea izango du, honako elementuekin: jokoan egiteko aretoa, ekitaldi-aretoa, eskulanetarako lantegia, bulegoa, biltegia eta komunak.

LKS-K IDATZIKO DU PROIEKTUA
Baina lanak egiten hasi aurretik proiektua idatzi beharra dago. Hain justu ere, LKS enpresari esleitu dio Udalak proiektua idazteko laguntza teknikoak egitea. Guztira, lau hilabete izango ditu LKS horretarako.



Argazkiko planoan ikus daiteke gutxi gorabehera zelan geratuko den Zerrajera inguru hura.

U.M.

HIRIGINTZA/ Etxebizitza sozialak

Esleitu dituzte alokairu sozialeko etxebizitzak

Zerrajeran eraikiko dituzten etxebizitza sozialak direla-eta, Udalak jakinarazi digu alokairuan hartzeko 95 etxebizitzak esleitu dituztela. Hala, horrelako etxebizitzetarako zozketan sartu direnen eta sartu ez direnen zerrenda Udaltxean dago, ikusgai.

INEMen atzeko aldean eraikiko dituzte etxe horiek. Guztira, 476. Etxebizitza sozialak izango dira. Hala, aurrena, aipatutako etxebi-

zitzen eraikina eraikiko dute. Eta haren ondoan, (argazkian ikusten den moduan) beste 110 etxebizitza eraikiko dituzte, gero, lurrazal eskubide moduan saltzeko. Horren ostean, gainerako etxebizitzak eraikiko dituzte. Adibidez, ezkerrean Udalak eraikiko ditu etxeak, kontrolatutako prezioan saltzeko. Eta aurrerago, babes ofizialekoak eraikiko dituzte.

Horrez gainera, jarduera eko-

nomikoendako eta hornikuntzetarako beste hiru eraikin eraikitzeko asmoa dute.

Eta, oro har, etxebizitza horien azpian egingo diren lokalei ere erabilera berezia emango zaie. Adibidez, alokairuzko etxebizitzaren azpian Musika-Eskola izango da. Gainerako lokalekin zer egin Udalak erabaki beharko du.

Orain, ingurua urbanizatzen eta azpiegiturak sartzan dabilta.

Azoka plazako saltokiak esleitu ditu Udalak

U.M.

Azoka plazan hutsik dauden saltoki finkoak eta bereziak esleitzeko lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak. Saltoki finkoak 2010era arte esleitu ditu, eta saltoki bereziak 2005era arte.

Azoka plazan saltokiren bat hartzeko interesa duenak asko jota hilabeteko epea du eskaera egiteko. Hain zuzen, eskaintza Udaleko sarrera erregistroan sartu beharko du hilabete baino lehen. Udaleko Zerbitzu Sailak jakinarazi digunez, guztira, 10 saltoki esleitu dituzte: bost finkoak eta beste bost bereziak.

Ekimen horren helburua da azokako saltoki finkoak (astelehenetik zapatara bitartean, biak) eta bereziak erabiltzeko eta ustiatzeko baimena ematea; eta aipatutako moduan, saltoki finkoen emakida esleipenaren hurrengo egunetik hasi eta 2010era

artekoa izango da. Eta, saltoki bereziena esleipenaren hurrengo egunetik 2005. urtera arte.

BALDINTZAK

Honako baldintzak bete beharko dira lehiaketara aurkezteko: saltoki finkoetan jarduteko proposamen ekonomikoa 180 eurotik gorakoa izan beharko da; saltoki berezietan astelehenetan, martitzenetan, eguenetan eta zapatuetan jarduteko proposamen ekonomikoa 15 eurotik gorakoa izan beharko da; eta saltoki berezietan eguaztenetan eta barikutan jarduteko 30 eurotik gorakoa. Horrez gainera, komeni da antzeko jardueretan esperientzia izatea eta hizkuntza gaitasuna izatea (euskaraz eta espainolez).

BOST EGUNERA


Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta handik bost lanegunetara zabalduko ditu Udalak proposamenak eta erabakiko zeini esleitu saltokiak.



Lapurreta saiakera gehiago herrian

Berrero ere lapurreten berri eman beharrean gaude. Lapurreta edo, behintzat, lapurreta saiakerak. Izan ere, aste bukeran Deba Garaia etxe agentzian sartu ziren, nahiz eta ez zuten ezer lapurtu. Eta astelehen gauean Saiolango beheko aldean dauden aldageletara eta komunetara sartu ziren, atearen eta leihoetako kristalak apurtuta.

FRENEMOS EL CAMBIO CLIMÁTICO



La actividad humana está alterando el clima mundial. No se conocen todas las consecuencias pero hay acuerdo en que serán muy graves.

Los gobiernos de los países industrializados se resisten a disminuir sustancialmente las emisiones de gases que provocan el Cambio Climático. Pero la ciudadanía también tiene un papel importante y muy directo en la solución de este problema: el uso que

Klimaren eta garraioaren gaineko erakusketak

UBANE MADERA

Udalako Ingurugiro Eskolak proposatuta, ingurumenarekin lotutako bi erakusketa ekarriko dituzte Arrasatera: bata klimaren aldaketaren gainean; eta bestea garraioaren gainean. Ekainean izango da lehenengoa.

Ekainaren 9an hasi eta ekainaren 15era arte klimaren aldaketaren gaineko erakusketa ipiniko dute Monterronen. Ekologistak Martxan taldearekin elkarlanean, aipatutako gaia landuko dute argazkiekin eta testuekin osatutako 12 panelen bitartez.

Hala, gizakiok sortzen gabiltzan klima aldaketa aztertuko dute paneletan; horren eragin ezkorrrak (berotegi efektua, ur eskasia, sute gehiago, gaixotasun berriak agertzea...); etorkizunerako dagoen aurreikuspen beltza; eta horri guztiorri aurre egiteko proposamenak. Adibidez, erakutsiko digu

kontsumitzen dugun larregiko energia dela klimaren aldaketaren arrazoi nagusia.

Ingurumenaren Eguna dela-eta antolatu dute erakusketa hori.

GARRAIOA

Eta, Auto Bariko Eguna dela-eta, irailari begira beste erakusketa bat antolatu dute. Kasu honetan, garraioaren gainekoa izango da. Eta aurrekoaren antzera, honek ere panelak izango ditu, argazkiekin eta testuarekin. Guztira, 15.

Adibidez, garraioak eragiten dituen ingurumen arazoak aztertuko dituzte; baita ere CO₂-ren emisioa %37koa dela eta horrek kalte handia eragiten dizkiola ozono geruzari; jakinaraziko dute hegazkinak, automobilak eta lastertasun handiko trenak direla arazo gehien sortzen dituztenak; automobila larregi erabiltzeak hiriari egiten dion kaltea... eta beste gauza asko.


Hori guztiori irailaren 15etik 21era ikusi ahal izango da, Monterronen.

LABUR

Gutxitu fisikoek egoera eta beharrak aztertu zituzten


Leintz ibarreko gutxitu fisikoak Arrasaten elkartu ziren eguaztenean. Euren beharrak eta eguneroko bizitzan dituzten oztopoak azaltzea zen batzarraren helburua. Izan ere, gizarteak asko aurreratu du gutxitu fisikoak onartzeko orduan, baita haien zailtasunak arintzeko orduan ere, baina Gipuzkoako Gutxituen Elkartearen iritziz, oraindik asko dago egiteko.

Horrez gainera, familierendako zama handia izan daiteke gutxitu fisikoren bat izatea, eta horretarako laguntza gehiago bideratu behar dela uste du elkarteak. Aisialdiaren garrantzia, gizartearen kontzientziazio beharra eta administrazioaren erantzukizuna aipatu zituzten batzarraren. Horiek eta beste gai batzuk landu zituzten.



LEHENENGO ZERNOLA OLINPIADAK, ARRAKASTATSU

J oan den egubakoitzean, I. Zernola Olinpiadak egin zituzten Miramongo Zientzia Museoa. Giro ezin hobea egon zen, eta 10 eta 12 urte arteko 120 neska-mutikok hartu zuten esku. Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat ikastetxetako gaztetxoak egon ziren olinpiadan; horien artean Arizmendiko San Viator guneko gaztetxoak egon ziren, eta ondo baino hobeto pasatu zuten.



ONGI ETORRI, UNAX!

Unax maiatzaren 26an jaio zen, eta Txatxiliko osaba-izebek ongi etorria egin gura diote. Argazkian agertzen den gaztetxo Unaxen anaia da, Urtzi. Zorionak, hari ere!

JUAN LLANERAS PISTAKO TXIRRINDULARIA ARRASATEN

J uan Llaneras pistako txirrindulari olinpikoa Arrasateko Kirol Medikuntza Zerbitzuan egon zen martitzenean, esfortzu proba egiten. Mutila sasoiko dagoela baina oraindik gehiago hobetu behar duela esan zuen Alberto Garai kirol medikuak. Juan Llaneras bost bider izan da munduko txapeldun eta behin txapeldun olinpiko. Punta-puntako kirolaria izan genuen Arrasaten.

Kanebo
INTERNATIONAL

MIREN ARRIETA
PERFUMERIAN

Zure larruazaleko edertasun ezkutua topatzen lagunduko dizugu

Ekainaren 2tik 6ra
PROMOZIOA
KANEBO produktuak erosteagatik oparia jasoko duzu*

Bisita gaitzazu Arrasaten
Zerkaosteta kalea 12
Tel.: 943 79 00 35

* Izakinak bukatu arte.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Ordutegia:
Astelehenerik-ostiralerara 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerías 35 - 943 77 13 78

Gorka ileapaindegia
peluqueria



XABIER URZELAI

Datorren urtean Mondrak eta Beti Gazte berrituko dituzte indarrak, preferente mailan.

FUTBOLA

Lesakako Beti Gazte taldea da erregional mailako txapeladun (4-1)

Mondrak lehenengo zatian aldeko haizea izan zuen, baina ez zuen aprobetxatu

XABIER URZELAI

Oriko futbol zelaian jokatzerakoan gauza bi izan behar dira kontuan: batetik, kontrarioa; bestetik, haizea. Mondrak lehen zatian aldeko haizea izan zuen, baina Josu Zubiaren mutilek ez zuten hori aprobetxatzen jakin. Bigarren zatian, berriz, Beti Gazte haizearen laguntza bikain aprobetxatu zuen.

Lehenengo zatian Mondrak izan zen jaun eta jabe. Arrasatearrek ondo jokatu zuten, nahiz eta sarritan gauzak azkarregi egin gura izan. Aldeko haizea izan zuten, baina arrasatearrek ez zuten hori ondo aprobetxatu. 35. minutura arte ez genuen golik ikusi, eta Ekainek egin zuen partiduko lehe-

nengoa. Bazirudien arrasatearrek gol bateko aldearekin joango zirela aldageletara, baina Beti Gazte banakoa egin zuen falta jaurtiketa baten. Behin iritsi, eta gola: errenta ezin hobea.

Bigarren zatian, berriz, kontrako haizea izan zuen Arrasateko taldeak, eta Mikel Mondrak atezainarendako ez zen partiduko goxoa izan. Kontrako haizea izanda ere, Mondrak hainbat gol aukera izan zituen, baina golak Beti Gazte egin zituen. Azken minutuetan epaileak Mondraren aldeko penaltia adierazi zuen, baina Muruak kale egin zuen. Ezin esan Arrasatekoek zortea lagun izan zutenik, baina partidua erabakitzeke aukera izan zutenean ez zuten aprobetxatzen jakin. Horrelako partidua asko izango dira

datorren urtean, eta zapatukoa gogoan izatea komeni da.

OHOREZKO GAZTEAK, IGO GURAN

Raul Leibak zuzentzen duen ohorezko gazte mailako taldeak aipamen berezia merezi du. Haiek ere denboraldi bikaina egin dute, eta bigarren postuan amaitu dute Liga Txapelketa.

Lehena, Oñatiko Aloña taldea, zuzenean sailkatu da Euskal Ligarako, eta mondragoetarrek bihar izango dute mailaz igotzeko aukera. Gipuzkoako, Bizkai eta Arabako ligetan bigarren postuan sailkatu diren hiru taldeek Atxabalpen jokatu dute bihar, zapatua, 16:30ean. Hiruko tornea izango da, eta torneoko onenak Euskal Ligan jokatu du datorren urtean.

Bihar hasiko da Besaide Mendi Elkarteak antolatutako Mendi Astea

Bihar, zapatua, hasi eta datorren egubakoitzera arte Besaide Mendi Elkarteak Mendi Astea egingo du. Urtero moduan, Besaidek hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta aurtengoak ere oso erakarriak dira. Esan bezala, bihar hasiko da Mendi Astea, eta, hasiteko, Besaidek mendi irteera antolatu du; hain zuzen ere, Hiru Errege Mahaira irteera.


Aste bukaera osoko mendi

irteera izango da, eta Linzako aterpetxean egingo dute lo. Goizeko zazpitan irtingo dira.

Mendi Astearekin jarraituz, astelehenean egubakoitzera arte diapositiba emanaldiak egingo dira: astelehenean, *Tibet-Nepal amets urdinaren bila* diapositiba emanaldia egingo du Agurtzane Ugaldek; martitzenean, Jesus Mari Barrena *Ketxuma-k, Nanga Parbat* diapositiba emanaldia

egingo du; eguaztenean, *Eskalada eta paisaiak Estatu Batuetako kostaldéan* izango da gaia Josune Bereziarturen eskutik; eguenean, Fernan Oregik *Myanmar, paradisu ezkutua* eskainiko digu; eta egubakoitzean, Jon Belokiren eskutik *Jainkosen altzoan, Himalaia* diapositiba emanaldiarekin gozatu ahal izango dugu. Diapositiba emanaldi guztiak Monteironen izango dira, 19:00etan.

FOTOKIROLA



Debarro Txapelketako finalerdietan

Arrasateko senior mailako pilotariak ondo dabilta Debarro Txapelketan, eta dagoeneko Zugasti eta Lazkano finalerdietan daude. Eguaztenean jokatu zuten joaneko partidua, Eibarren, eta arrasatearrek 22-14 galdu zuten Martinen eta Ben-goetxearen kontra. Ondo hasi zuten partidua, eta 14na joan ziren; orduan, baina, eibartarrek pilota aldatu, eta 22raino segidan egin zituzten tantoak. Ez da emaitza ona, baina itzuliko partidua geratzen da. Martitzenean, 19:45ean, Uarkapen.

PILOTA

Koadrila Arteko Txapelketan jardunaldi bi jokatu dituzte aste bukaeran

Koadrila Arteko Txapelketa aurrera doa. Dagoeneko lau jardunaldi jokatu dira, eta oraingo aste bukaeran parte-hartzaileek bina partidua jokatu beharko dituzte, baita datorren aste bukaeran ere; izan ere, egutegi arazorik ez izateko, partidua lehenbailehen jokatu behar dira. Esan bezala, lau jardunaldi jokatu dira, eta Gaizka eta Ugutz dira A multzoko liderrak; B multzoan, Kepa eta Jabi dira lehenak; C multzoan, Poke eta Txama; eta D multzoan, Iñigo eta Isturitz. Oraindik, baina, txapelketa luzea geratzen da aurretik.

ATLETISMOA

Arrasateko hiru atletak urrea eskuratu zuten Eibarren jokatu zen Eskola Arteko Txapelketan

Joan den astean Eibarren jokatu zen Infantil Mailako Eskola Arteko Txapelketan San Viator ikastetxea laugarren izan zen, eta Arrasateko hiru atleta gazte urrea lortu zuten.

Iñaki Etxagibel onena izan zen 80 metroko hesi-lasterketan, Jon Ander Amado ere azkarrena izan zen 150 metroko lasterketan eta Markel Blanco ere lehena iritsi zen helmugara 1.000 metroko lasterketan. Lehenengo postu horiei esker, hiru atleta horiek Euskal Selektioarekin parte hartzeko txartela eskuratu dute.

KIROLDEGIA

Aste bukaeran barruko igerilekua itxita egongo da, Eskola Arteko Jokoak direla-eta

Oraingo aste bukaeran Euskadiko Eskola Arteko XIII. Jokoak izango dira Musakolako igerilekuan. Jokoak zapatuan eta domekan izango dira, eta bi egun horietan gaztetxoek guztira 30 proba egin beharko dituzte.

Joko horiek direla-eta, Musakolako barruko igerilekua itxita egongo da gainerako erabiltzaileendako. Horren harira, ekainaren 14an (zapatua) irekiko dute kanpoko igerilekua.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA



Joan den urtean Aramaiora bizikletaz joan zireneko argazkia.

ARRASATE PRESS

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Bihar, zapatua, Arrasate Kirol Proiektuaren azken jaia

Uda gertu dago, eta ikasturteari ez zaio askorik geratzen: azken jaia egitea falta da!

XABIER URZELAI / AKP

Arrasate Kirol Proiektuko XIII. ikasturtearen amaiera iristear dago. Ikasturtea amaitu aurretik, baina, azken jaia egitea ohitura bilakatu da, eta aurten ere azken jaiak ez du kalerik egingo. Ondo pasatzeko beste aukera bat izango da.

Azken jaia bihar, maiatzak 31, ospatuko dute Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoeak. Iturripen hasiko da jai hori, bertan elkartuko dira eta Aramaiora bizikletaz joango diren gaztetxo guztiak. Bizikleta ibilaldia goizeko hamarretan irtengo da Iturripetik, eta Aramaiora iristerakoan gaztetxoek atsedean hartzeko aukera izango dute. Indarrak berreskuratu eta gero, Arrasatera itzuliko dira, eta itzulera errazagoa izango da, aldapa behera etorriko dira eta ziklista gaztetxoak.

Ibilaldiaren irteera Iturripen egongo den arren, txangoaren helmuga Herriko Plazan egongo da, eta txirindulari guztiak udalaxe aurrera iristen direnean, jaiarekin jarraituko dute. Herriko Plazan, ikasturte osoan etapa bakoitzean egin dituzten txapelketen irabazleei sariak emango dizkiete. Horrez gainera, hainbat operari zozketatuko dituzte, eta ezustekoak ere izango dira. Antolatzaileen esanetan, ekitaldia

13:00ak aldera amaituko da.

ETAPA BAKOITZEKO IRABAZLEAK
Ikastetxe hauek dira ikasturte osoan aurrekirolean egindako txapelketen irabazleak: lehenengo postuan Mesedeetako Ama A taldea sailkatu da; Gazteluondo 4-D taldea izan da bigarrena; eta Gazteluondo 4-B taldea hirugarrena. Multikirolean, berriz, nesketan, Mesedeetako Ama taldea izan da lehena; Gazteluondo 5 taldea bigarrena; eta Aramaio taldea hirugarrena. Mutiletan, berriz, Gazteluondo 6-A taldea sailkatu da lehenengo postuan; Gazteluondo 5-B taldea bigarren postuan; eta Aramaio taldea

izan da hirugarrena.

IKASTURTEAREN BALORAZIOA
AKPko arduradunek balorazio positiboa egin dute, aurtengo partaidetza datuak kontuan hartuta: eskolara joaten diren umeen %50ek AKPn esku hartu dute. Urteko programan sartzen diren ekintzak normaltasunez garatu dira, eta neska-mutikoen erantzuna ona izan da.

Eta, horrez gainera, egin dituzten ekintza bereziek eta antolatu dituzten hitzaldiek ere oso harrera ona izan dute. Horrenbestez, aurten ere Arrasate Kirol Proiektuak erantzun ona jaso du.



Aurten ere Aramaiora joango dira gaztetxoak bizikletan.

ARRASATE PRESS

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

EMAITZAK	
Betrayer - AC Surcos	2-7
AT Celaya - Lasagabaster	1-1
You Know! - Etxerat	0-1
Saukelu Scream - Koka Juniors	6-3

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Betrayer	4	3
2. Saukelu Scream	4	3
3. AC Surcos	3	3
4. Koka Juniors	1	3

B MULTZOA	P	J
1. Etxerat	6	3
2. AT Celaya	3	3
3. Lasagabaster	3	3
4. You Know!	0	3

PARTIDUAK

MAIATZAK 31, ZAPATUA. EPAILEAK

16:00: Betrayer - AT Celaya.	Antola.
17:00: Etxerat - Saukelu Scream.	Antola.

FINALERDIAK JOKOAN!

BIHAR ERABAKIKO DA NORTZUK EGONGO DIREN FINALEAN

Bihar, zapatua, finalerdiak jokatuko dituzte Betrayer, AT Celaya, Etxerat eta Saukelu Scream taldeek. Lau taldeok gogor lan eginda iritsi dira finalerdietaraino, baina bidean ere talde garrantzitsuak geratu dira. Txapelketa luzea da, eta ez da nahikoa fase baten sekulako maila erakustea, erregulatasunak ematen du eta finaleroko giltza. Ea norgehiagoka ikusgarriak izaten diren!

TXAPELKETAKO JOKALARI ONENAK

Iker Zaitegi	Atezaina (Koka Juniors)
Xabier Martínez	Jokalaria (Etxerat)
Iñigo Labaien	Jokalaria (AT. Celaya)
Asier Aranalde	Jokalaria (Fuxxion)
Oliver Hernández	Jokalaria (Saukelu Scream)
Juan Pablo Morillo	Jokalaria (Betrayer)

FOTOKIROLA



Kenci Arrasatek denboraldia amaitu du

Kenci Arrasatek hamabigarren postuan amaitu du Liga Txapelketa. Viajes Marfil taldearen kontra 100-90 galduta zuten arrasatearrek joan den zapatuan. Joaneko partiduan zortzi puntuko aldearekin nagusitu ziren mondragoetarrek, baina errenta hori ez da nahikoa izan, eta puntu biko aldearekin eskuratu du Viajes Marfilek hamaikagarren postua. Denboraldia amaituta, atsedean hartzeko unea da, baina taldeko zuzendaritza dagoeneko hasi da datorren urterako taldea eratzen. /X.U.



PROFESIONAL liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxe: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ASESORIA ARRASATE

Erdiko kalea 32, 1. Arrasate
Tel.: 943 79 01 47 Faxe: 943 79 73 00
asesoriaarrasate@telefonica.net

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxe: 943 79 34 26
emun@emun.com

GERTU AHOLKULARIAK

Otalora 38 B. Arrasate
Tel. 943 79 94 21 Faxe: 943 79 86 44
gertu@conet.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxe: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxe: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxe: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BERTSOLARITZA/ AEDko Bertsolaritza Sailak bertso jaialdi berezia antolatu du bihar, zapatua

Punta-puntako bertsolariek jaialdia egingo dute Monterron parkean

IKER BARANDIARAN


Arrasateko, Aramaioko eta Bergarako gazte batzuek AEDko Bertsolaritza Saila sortu dute. Gure artean bertsozaleatasuna eta bertsolaritza bultzatzeko asmoa dute. Bihar, zapatua, Egaña, Elortza, Maia eta Mendiluze eramango dituzte Monterron parkera.

Orain dela lau zapabost urte, AEDn Bertso Eskola sortu zuten. Hainbat gazte batu ziren, baina gero bost bertsolari bakarrik gelditu dira: Enaitz Alustiza bergararra, Lierni Altuna eta Manex Agirre aramaiarrak eta Jokin Labaien eta Nerea Urrea arrasatearrak. Bada, indarrak batu eta AEDko Kultura arduradunarekin lankidetzan, AEDko Bertsolaritza Saila sortu dute.

ERRELEBUA INDARTZEKO ASMOA

Jokin Labaienek honako hau esan zigun: "Ez dago erreleburik, une honetan gu gara bertsolari gazteenak. Horregatik, umeen eta gaztetxoekin bila joatea erabaki dugu". Hori lortzeko, gaztetxoekin artean bertsolaritza bultzatzeko, alegia, eskola arautuaren proiektua sortu zuten. Dagoeneko eman dizkiete eskolak Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Arrasateko gaztetxoei. Orain, Arrasaten, behintzat, Bertso Eskola sortu gura dute: "Irakasle barik gelditu gara, eta eskolak guk geuk emateko ordua heldu dela dirudi".

Euren iritziz, herrian badago bertsozaleatasuna baina zaleei gauzak oso eskura eman behar zaizkie. Edozelan ere, ekintza deigarriak antolatuz gero erantzuna ona dela uste dute. Parte hartzeiko interesa duenak egubakoitzero, iluntzean, AEDko txokoan aurkituko ditu lagunok.



Besteak beste, Igor Elortza izango da bihar, zapatua, bertsotan Monterron parkean.

GORKA SALMERON / XDZ

Beste era bateko jaialdia bihar

Bihar, zapatua, AEDko bertso sailak jaialdi berezia antolatu du Monterron parkean. Hain zuzen, 22:30ean, Igor Elortza, Andoni Egaña, Jon Maia eta Aitor Mendiluze ibiliko dira bertsotan. Gai-jartzailea Josu Goikoetxea izango da. Sarrera hiru euro kostatzen da, eta aurrez eros daiteke AEDn, Hiren edo Iratin.

AEDko bertso saileko partaideek jaialdi berezia antolatu gura izan dute. Horretarako Monterron parkea aukeratu dute, bertso ekitaldietarako ohikoena ez

dena. Eguraldi txarra egiten badu, Amaia Udal Antzokian egingo dute jaialdia. Gai-jartzailea ere ez da ohikoena.

Bestalde, bertsolariei hain ohikoak ez diren ariketak eskatuko dizkiete, eta baliteke hainbat ezusteko egotea.

AEDko bertsolaritza sailak urtean bertsolaritzarekin lotutako hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa du: horra hor herriko jaietako ekintza puntualak, bertso afariak eta bestelako ekintzak, auzoetan ere egingo dituztenak.

Atzo, eguena, XVI. Arrasate Lehiaketetako epaia eman zuten aditzera

I.B.

Atzo, eguena, AEDk antolatzen duen Arrasate Lehiaketan XVI. aldiaren epaia eman zuten aditzera. Parte-hartzeak behera egin du: 2001ean 145 lagunek hartu zuten parte eta 2002an, berriz, 124 lagunek.

Atzo, eguena, AEDk XVI. Arrasate Lehiaketetako epaia eman zuten aditzera.

Ipuinetan, 12 urteko lehenengo saria ez diote inori eman eta bigarren saria Sara Belokiri eman diote; 13 urteko lehenengo

saria Beñat Barberenak eskuratu du eta bigarrena Unai Pagaldairi eman diote; 14 urteko lehenengo saria Jone Sagastak eskuratu du eta bigarrena, Maria Amutxastegik; 15-16 urtekoen artean, lehenengo saria Hasier Erañari eman diote eta bigarrena, Elena Marcosi; azkenik, 17 urtetik gorakoetan, lehenengo saria Urtzi Armendarizek eskuratu du eta bigarrena, Eneko Barberenak.

Poesiari dagokionez, parte-hartzaile eta sari gutxiago egon dira: 14 urte artekoen artean, lehenengo saria Jone Sagastari

eman diote eta bigarrena, Silvia Maria Secori eta Onintza Langanari; 15 eta 16 urte arteko eta 17 urtetik aurrerako gazteek egingandako poesia lanei dagokionez, epaimahaiak ez die inolako sariarik eman.

Bertso-paperetan, 14 urte artekoetan, lehenengo saria Gemma Carballeresez eskuratu du eta bigarrena, Amaia Sánchezek; 15 eta 16 urte artekoetan, Maitane Mazmelak lehenengo saria eskuratu du eta Jon Zuloagak bigarrena; 17 urtetik aurrerako gazteek ez dute bertso-paperik aurkeztu, eta ez da saririk egon.

Komikien sailean, ez da 15 eta 16 urte arteko gazterik aurkeztu, ezta 17 urtetik aurrerako gazterik ere. Hortaz, aurten uste baino sari gutxiago banatu dituzte. Edozelan ere, 14 urte arteko gazteak aurkeztu dira: lehenengo saria Ander Mendietak eskuratu du eta bigarrena, Juana Elvak, Ikeia Iborrak, Unai Arizmendiarrak eta Nerea Ugaldek osatutako taldeak.

AEDko arduradunek jakinarazi digutenez, partaidetzak behera zergatik egin duen argitzeko eta irtenbideak bilatzeko hausnarketa egiteko asmoa dute.

LABUR

Erraldoi eta kilikiak erabiltzeko aukera egingo da bihar

Bihar, zapatua, Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa kalera irtengo da. Konpartsa lau erraldoiak, sei kilikiak eta bi zaldikoak gura duenak erabiltzeko moduan egingo dira. Hain zuzen ere, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egingo da horretarako aukera.

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa partaide gehiagoren bila dabil, eta ekimen horren bitartez erraldoiak eta kilikiak herritarrei hurreratu gura dizkiete.

Ekin Emakumeen sukaldaritza ikastaroa

Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa antolatu du. 12-15 laguneko talde txikian sukaldaritza oinarriak ikasiko dituzte. Ekainaren 2an, 4an, 5ean, 11n, 12an, 16an, 18an eta 19an izango da ikastaroa, 19:00etatik 21:00etara. Izena eman lehenbailehen Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan bertan.

Ekainean ere eguenero emango dute zinekluba

Kultura Sailak ekaineko egueneroan ere antolatuko du zinekluba. Ekainaren 5ean, Paul Greengrass-en *Bloody Sunday* filma emango dute; ekainaren 12an, Laurent Cantet-en *L'emploi du temps*; eta ekainaren 19an, Costa-Gavras zuzendariaren *Amen* filma. 26an, San Juanak direla eta, ez dute filmik emango.

Monterrongo pintura ikasleen erakusketa

Monterronen pintura ikasleen dabilzan ikasleek erakusketa jarri dute Harresi aretoan. Maiatzaren 23an zabaldu zuten erakusketa eta ekainaren 1era arte ikusi ahal izango dira Monterrongo ikasleen lanak. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara dago zabalik eta zapatuetan eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketan 50 lan baino gehiago daude: besteak beste, paisaiak, ardanegi asko, erretratuak eta, bitxikeria moduan, Van Gogh-en lan baten kopia. Gehienak figuratiboak dira. Olio asko daude, baita akuarelaren bat ere.

ELKARRIZKETA

JUAN LUIS LIZARRALDE/MARGOLARIA

“Niretako esanahi berezia duten gaiak aukeratzen ditut: txikitako oroimenak...”

IKER BARANDIARAN

Juan Luis Lizarralde aspaldian dabil Abaroa erretiratuen elkarteko batzarrean lanean. Horrez gain, margolaria ere bada, eta joan den astean EAEko eta Nafarroako erretiratuen Margo Lehiaketako lehenengo saria jaso zuen.

Noiz piztu zitzaizun margotzeko zaletasuna?

Beti izan dut margotzeko zaletasuna, nahiz eta urtetan askorik ez margotu. Gaztetxotan, San Viatorren nobilela, marrazkiak egiten eta margotzen hasi nintzen. Gero, Eskola Profesionalean hasi nintzen, eta orduan ez nuen ezertarako astirik. Eskolak jaso eta lan, biak egiten genituen.

Noiz hasi zinen berriro margotzen?

70eko hamarkadan, Fagorren lanean nobilela. Lan egin ostean taldetxo bat Javier Egia maisuarekin elkartu, eta margotzeko hastapenak ematen zizkigun. Orduan piztu zen itzalita neukan zaletasuna. Olioak erabiltzen hasi ginen, eta bultzada eman zigun.

Gerora beste margo eskolarik jaso dituzu?

Bai. 1995ean Monterronen eman nuen izena eta Amaia Bengoa irakaslearekin urte bi egin nituen. Sasoi hartan zaletasuna serioago hartu nuen. Horren ondoren, Santa Teresan Bingen de Pedro irakaslearekin beste urte bi egin nituen. Batez ere inpresionismoa lantzen genuen: paisaiak, lore sortak... Geroago Bergarara jo nuen eta Juan Jose Akizu irakaslearekin hasi nintzen.



IKER BARANDIARAN

“Margotzerakoan, batzuetan, herriko argazki zaharretan oinarritzen naiz”

“Epe motzean izango ez den arren, badut asmoa erakusketaren bat prestatzeko”

“Udalako paisaiak eskuratu du EAEko eta Nafarroako erretiratuen Margo Lehiaketako saria”

tzen. Astean egun baten joaten naiz hara.

Etxean ere margotzen duzu, ezta?

Ez nik gura nukeen beste, baina hori nire zaletasun nagusia da eta ahalegintzen naiz etxean ere denbora eskaintzen.

Zeintzuk dira margotzeko aukeratzen dituzun gaiak?

Orain arte inpresionismoa jorratu dut, eta, batez ere, paisaiak margotu ditut. Argazkiak ateratzen ditut eta gero, argazkia eskuan hartuta, etxean margotu egiten dut. Inguruko herri eta auzo askotako margolanak ditut: Urkulu, Udala, Leintz Gatzaga, Gellao... Baita, Arrasateko kale-etakoak ere: Kontzezino, Arbola-peta, Arrasate pasealekua... Batzuetan argazki zaharrak hartzen ditut eredu. Esanahi berezia duten gaiak aukeratzen ditut: txikitako oroimenak ekartzen dizkidatenak. Berez, margotzea bera da polita.

Eman dizuten sariak erakutsi dizu zure lanek onespena dutela...

Bai, pozgarria da. Erretiratuen arteko Margo Lehiaketa zegoela jakin nuenean, parte hartzea erabaki nuen. Ez nuen ezer irabazterik espero, parte hartze-arren izan zen. Lan bi bidali nituen: bata, Udalako paisaia bat; eta bestea, artisau bat kaikuak egiten. Udalako lanak eskuratu zuen lehenengo saria, eta harrিতuta gelditu nintzen.

Erakusketaren bat egiteko asmorik baduzu?

Gurako nuke, baina ez epe motzean. Poliki-poliki prestatuko dut eta egingo dut, bai.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

BEHEKOENPRESATIK

Josu Biteri Orobengoa

ELEKTRO URONDO ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

Elektro Urondo enpresan 22 lagunek egiten daue lan, eta Josu Ingenieritza Saillien dabil. Mondraguetarra, oin dala bost urte ezkondu zan, eta alaba bi d ditu. Nagusixek 3 urte dauko eta gaztienak urtebete baiño ez. Juerga gutxi egiten d ditu, umetxo bikin bixamonie pasatie gogorra izeten da-eta.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Danetik; bonbero, adibidez.
Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, baiñe ze bonberok gure dau nere lanpostue?

Ze esango zeuskio Bushei?

Etxien geratu daille.

Eta Aznarrei?

Iguela, ha etxien geratu daille.

Drogak legalizauko zeuke?

Batzuk legalizaute dauz eta ilegalizaute dauzenak be ibiltten d ditu jentiek; hortan...

Eta prostituziñue?

Legalizaute euela uste neuen.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Ikusi doten azkena *El Dragón Rojo* izen da / Pérez Reverten liburu bat nabil irakurten / *The Matrix* pelikulan soiñu-bandie.

Nora juengo zitzake gustora?

Ointxe bertan... Udelara.

Uharte batera ze hiru gauza eruenko zeuke?

Alabak eruenko nittuke, eta emaztie atzetik etorriko litzake.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Gorrotagarrixe ez danik badau, ala?

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Geruago eta gutxiago. Mondraguen bertan.

Puntuau Mondragueko girue.


Ez dakit ba... Azkenekoz urte neuenien jente gutxi ebillen.

Ze dauko ona udaberrixek?

Eguraldixe.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Ordularixari begire egon barik



*"Gurago dogu
taillerra Kataiden
eukittie; kalien eukiko
bageunke, zoratu
egingo gitzake"*

lan egittie.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeinekin?

Emakume batekin nahikue dauket nik.

Jefiari ze esango zeuskio gustora?

Kabroie dala, elkarrizketa honetarako engantxau dust-eta.

Denpora librien ze egiten dozu?

Ahal dotenien, motorrien bueltatxo bat.

Janari eta edari gustokuenak?

Jateko, bixigüe; edateko, arda baltza.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

*"Ingenieritza Saillien
programau, mantenu
lanak egin eta
makiñak barriketan
dittugu"*

ETak behin betiko su-eten iragarri dauela.

Ze da gehixen egiten dozuen lana?

Ingenieritza Saillien, gehixenbat, programau, mantenu lanak egin, makiñak barritu...

Ondo esnaketako... atzamarak entxufera?

Ez! Jefie parez pare eukittiekin nahikue da, edo lehenengo orduen poltsikoko telefonue jo eta jo hasten danielen be nahikue izeten da ondo esnaketako.

Taillerra eukitteko, Kataiden ala kalien hobeto?

Guk kotxe eta furgoneta asko daukogu, eta kalien egongo bagitze zoratu egingo gitzake.

NIREBIDAIAHURA/ Agurtzane Ugalde

Nepal eta Tibet / 2002ko udazkenean

Agurtzane Atzeskua sailean agertu zen joan den aste-ko GOIENKARIAN, eta bidaiak egiteko daukan zale-atasunaren gainean galdetu zioten. Bidaia asko egin ditu Agurtzane, gehienak bizikletan. Joan den udazkenean Agurtzane Nepalen eta Tibetean egon zen, bizikletan ibiltzen. Lagun batekin joan zen, eta, han bidaia bakarrik egitera zihoan Austriako beste bidaiari batekin topo egin, eta hirurek ekin zioten bidaiari. Nepalgo hiribururitik, Katmandutik, Tibetera joateko arazoak izan zituzten. Hegazkinez egin zuten bidaia hura, eta bosteko taldetxo bat egin arte ez zuten hegazkina hartzeko baimenik lortu.

Nepalen ez zuten gauza askorik egin, turismoa besterik ez. Bidaia, neurri handi baten, Tibetean egin zuten. Guztira 900 kilometro egin zituzten bizikleta gainean, eta bi hilabetez egon ziren etxetik kanpo. Agurtzane esanetan, bizikletan egin zituzten kilometroak ez ziren oso gogorrak izan: "Errepideak guk uste genuen baino hobeto zeuden, eta ez dira horren aldapsuak. Hori bai, portu bat baino gehiago igotzerakoan bost mila metrora geunden, eta hori igarri egiten da. Nekea ez da gorputzeko atal baten bakarrik nabaritzen, gorputz osoa egoten da nekatuta, eta nekea era bateko edo beste-koa izaten da".

Hemendik joan zirenean, beldur apur batekin ere joan ziren, bidaia gogorrakoa izango zela uste zutelako. Han, baina, zortea lagun izan zuten. Hori dio, behintzat, Agurtzane: "Bidaian zehar beti izan genuen non lo egin eta non jan. Hangoekin ere oso harreman ona izan genuen, eta Tibet barru-barruan sentitu nuen". Bizikleta gainean bidaiatzeak lurraldea hobeto ezagutzeko aukera ematen du. Datorren astean ere Tibetean segituko dugu, Annapurna inguruan.




*"Zorte handia
izan genuen,
ez genuen-eta
inongo
arazorik izan"*

*"Bizikletan
bidaiatzea
atsegin dut,
edo oinez
bestela"*

XABIER URZELAI




Atsedendaldia une baten egindako argazkia.



**Gambrinus
garagardotegia**

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK

- DISEINUA

- APAINKETA


Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



**Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis**

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Argazkian, duela gutxi Abaroa erretiratuen elkartearen egin zuten berbaldia. Bizi-testamentuen gainean egin zuten berba.

Bizi-testamentua: etorkizunerako erabaki medikuak aurretik zehaztea

IKER BARANDIARAN

2002ko azaroan Espainiako gobernuak bizi-testamentuaren gaineko legea onartu zuen. Eta 2003ko maiatzean indarrean jarri dute legea. Bizi-testamentua etorkizunean hartu gura izango liratekeen erabakiak orain zehaztean datza.

2002ko azaroan Espainiako gobernuak bizi-testamentuaren edo alde aurretiko borondateen legea onartu zuen. Eta 2003ko maiatzean jarri dute indarrean lege hori. Are gehiago, orain dela gutxi EAEko legebiltzarrak gai berberaren gaineko beste lege bat onartu du.

Onartu berri duten legea eta, azken baten, bizi-testamentua gai

berria denez eta oso jende gutxik ezagutzen duenez, Arrasateko Abaroa erretiratuen elkarteak berbaldia antolatu zuen. Kutxa-ko Gizartekintzak Bilboko Aitziber Emaldi legelaria Arrasatera ekarri zuen, horren gaineko azalpenak ematera. Jende dezente hurbildu zen horren berri entzutea.

Aitziber Emaldik azaldutakoaren arabera, bizi-testamentua baino alde aurretiko borondatea deitzen diote, testamentuaren eta hiltzearen esanahi hori zelanbait arintzeko.

Lege horren oinarria 60ko hamarkadan jaio zen. AEBetan horrelako lege baten beharra ikusi zuten. Kasu batzuetan, esaterako, lagun batek istripu bat jasan badu eta gertatzen denaren jaki-

tun ez bada, medikuek egoera zalantzarri baten aurrean ez dakite zer egin, zelan jokatu. Horrelako kasuetarako balio dute alde aurretiko borondateak.

GURAKO ZENUENA, AURREZ IDATZI

Aitziber Emaldik eta gai horren gaineko beste adituek azpimarratzen duten bezalaxe, bizi-testamentua azken baten egoera berezi baten, laguna eginkizunen jabe ez denean edo hilik dagoenean beste batzuek berarekin zer egin gurako zukeen idatzita uztea da. Gero, dagokionak bere nahia bete dezan.

Hiltzen denean, bere organoak eman gura dituen edo ez ziurtatzeko, baita ematekotan zein organo emango lituzkeen jakiteko ere balio du. Madrilen, esaterako, bitxikeri moduan, hiltzerakoan gero eta jende gehiagok ematen dio bere gorpua zientziari, ehorketa gastuak gero eta garestiagoak direlako.

Baina erabaki horiek ez dira bakarrik hil eta gero indarrean jartzen. Ezbeharren baten ondorioz edo endekatze-gaixotasun baten erruz lagun bat bere eginkizunen jabe ez bada edo kordea galduz gero, berak idatzitako nahia edo borondatea indarrean jarri beharko litzateke. Hain zuzen ere, bere egoerarengatik makina bati itsatsita egon behar badu eta medikuek berarekin zer egin ez badakite. Askotan, horrelako egoeratan, medikuek familiari zer egin galdetu beharrean egoten dira.

Horiez gain, badaude beste kasu bereziagoak ere: Jehovaren lekukoek ez dute odol transfusiorik hartu gura izaten, eta hori ere ezbehar baten aurrean idatzita uztea komeni da. Ehunka nahi eta kasu daude.

Ordezkarria izendatu

Aldez aurretiko borondateen legea duela oso gutxi aplikatzen hasi da, maiatzean hain zuzen ere. Arrazoi horregatik oraindik ia ez ditugu horren inprimakiak ikusi. Aitziber Emaldik Abaroa elkartearen eman zuten berbaldira inprimaki batzuk ekarri zituen eta guk bat eskuratu genuen.

Hala ere, inprimaki horrek eredu moduan balio du. Ez da derrigorra inprimaki hori eduki beharra. Are gehiago, interesatuak baldintza edo borondate berriak erantsi ditzake. 18 urtetik gora baditu, notario edo mediku baten aurrean bere nahia edo borondateak argi eta garbi azaldu eta idazten baditu, horrek ere balio berdina izango du. Hori bai, NA zenbakia eta sinadura ere jarri beharko ditu.

Batzuk bizi-testamentuaren agiria eutanasiarekin lotu gura izan duten arren, adituek azpimarratu gura izan dute eutanasia legez kanpo dagoela eta bizi-testamentuaren agirian eskatzen den guzti-guztia egungo legediaren barruan egon behar duela. Are gehiago, medikuek edo osasun-pertsonalak ez du legez egin ezin duen ezer egingo.

Bestalde, bizi-testamentuaren agiria egiterakoan, interesatuak lagun bat ordezkari izendatu beharko du, halako kasu baten lagun horrek bestearen osasunaren gaineko erabakiak har ditzan.

JAKINGARRIAK

Uribarriko erretiratuen ekintzak

Uribarriko erretiratuen elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu ekaineko lehenengo egunetarako: ekainaren 3an, Gipuzkoako leinuaren gaineko berbaldia egongo da. Berbaldi hori 17:00etan izango da; ekainaren 6an, beste berbaldi bat egongo da, hori ere 17:00etan. Uribarriko elkartera hurreztatzen direnei etxeko telelaguntza zerbitzuaren gaineko zehaztasunak emango dizkiete; ekainaren 9an, Uribarritik Aretxabaletaraino oinez joango dira. Hitzordua 16:00etan jarri dute eta komeni da aurretik izena ematea.

Ekainaren 16an, Olitera txangoa egingo dute. 20 euro ordaindu beharko dira. Izena eman lehenbailehen.

Erretiratuen bazkaria kiroldegian

Urtero moduan, SUDC elkarteak Arrasateko erretiratu guztiendako herri bazkaria antolatu du Musakolako kiroldegian. Bazkaria bihar, zapatua, izango da, 14:30ean. Aurretik, 12:30ean, meza izango dute San Juan Bautista elizan.

13:30ean, gura duenak Musakolara joateko autobusa doan izango du Garibain. Kiroldegian 1.000 lagunetik gora espero dituzte, eta, urtero moduan, giro polita egongo da. Bazkalostean, gizon eta emakume nagusienei omenaldia egingo diete. Horren ondoren, sariak zozkatuko dituzte eta dantzaldia egongo da. Ondo pasatu eta urte askotarako!

Udalak eta Aldundiak, akordioa

Arrasateko Udalak eta Aldundiaren Gizarte Sailak, Gizartekintzak, akordioa sinatu dute. Horren arabera, mendekotasuna eta mendekotasun handia duten 60 urtetik gorako 98 lagun Iturbide egoitzan egoiliar sartu ahal izango dira. Eta horren truke, mendekotasuna duten lagun horien mantenu-kostuetarako diru kopuru zehatz bat emango dio Gizartekintzak Arrasateko Udalari.



Abaroa elkartekoak Oropesan egon dira

Abaroa erretiratuen elkarteak Oropesara txangoa antolatu zuen. Arrasatetik autobus bi irten ziren, eta guztira 109 lagun joan ziren. Oso gustura ibili ziren Oropesan, eta, besteak beste, jacuztia erabiltzeko aukera izan zuten.

Oropesan lasai egoteaz gain, hango inguruak ikusi gura zituen taldetxo bat Valentziara joan zen egun-pasa. Valentzian Zientziaren Museoa, Harriaren Museoa, azoka eta beste hainbat leku ikusi zituzten. Argazkian, Abaroako hainbat partaide Zientziaren Museoaren eskaileretan.



ARRASATE
Arrate Isasi-Isasmendi
Maiatzaren 21ean, 9 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Markel Urrutia
Maiatzaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Izaroren eta lagunen partetik.



ARRASATE
Gorka Ajuria
Maiatzaren 28an, 14 urte.
Zorionak! Gurasoak eta anaia.



ARRASATE
Mikel Iribecampus
Ekainaren 1ean, 8 urte.
Zorionak! Etzekoak.



ARAMAIO
Juan Joxe Abarrategi
Maiatzaren 28an, urtebetetzea. Zorionak! Familia-koak eta Izadi dendakoak.



ARRASATE
Nerea Gorostidi
Maiatzaren 22an, 19 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Laura Tejero
Maiatzaren 30ean, 24 urte.
Zorionak, Lauri! Miguelen eta ahizparen partetik.



ARRASATE
Ander Belategi
Ekainaren 1ean, 25 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Mireia Tena
Maiatzaren 29an, 9 urte.
Zorionak! Etzekoak.



ARRASATE
Juan Carlos Delgado
Ekainaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
June Rodríguez
Maiatzaren 30ean, 4 urte.
Zorionak, Iaztana! Amatxo, aitaxo eta etzekoak.



ARRASATE
Juan Antonio Carrero
Ekainaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Familiako-en partetik.



ARRASATE
Naia Figueroa
Ekainaren 10ean, 2 urte.
Zorionak! Aitona, amona, osaba eta izeba.



ARRASATE
Maite Iglesias
Ekainaren 1ean, 19 urte.
Zorionak! Koadrilaren partetik.



ARRASATE
Lupe Lz. de Abetxuko
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Familia-koen partetik.



ARRASATE
Olatz Garmendia
Ekainaren 2an, 9 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Yoli Fernández
Ekainaren 7an, 20 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Oihana Jiménez
Ekainaren 3an, 18 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Izaro Uribarren
Maiatzaren 29an, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama, Udane eta Zapi.



ARRASATE
Markel Otxoa Arana
Maiatzaren 31n, 4 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Aitor Uribetxeberria
Maiatzaren 27an, 6 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.



ARRASATE
Nelson Ferreira
Ekainaren 8an, 6 urte.
Zorionak! Etzekoen partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeko komeni da.

EZETZASMATU



ARTIBOIA

Zein izen zuen argazkian ikusten duzuen eskolak?
Arrastoa: arrasatear ospetsu baten izena da.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Colon detergentea
osoa/erdigaingabetua/gaingabetua
litroko brika

0,62€ 103 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARI KARMEN AREXOLALEIBArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mari Karmen!
Galderen erantzun zuzena:
Musakolan.

ARRASATEKO HISTORIA

Okendo jauregia, erabilera askotako eraikina

JON ANDER RAMOS

Maala kalearen barrena eginez gero, gure begiek segituan egingo dute topo Okendo etxearekin, antzinako Barrutia Zelaa. XVII. mendearen amaiera aldekoa da etxe hori; harrizko etxe handia. Eraikin soila da, apainketa barikoa. Herreriar barroko estiloko jauregia da, hain justu.

Aurreko alde berezia dauka eraikinak, harlanduzkoa. Balkoiek, berriz, forjatutako burdinarekin egindako eskudetak dituzte, burdin sarez apaindutakoak. Eta balkoien azpiko aldean barroko garaiko harriz egindako hornidurak ditu.

Erdiko aldean, berriz, eskuz landutako armarr handia dauka, Barrutia familiarena. Haren gainean errenazimendu garaiko krismoia nabarmentzen da. *Soli Deo, honor et gloria* (Jainkoari bakarrik ohorea eta gloria) leloa dauka idatzita. Bitxikeria moduan, lelo bera dauka Urretxuko heraldikak.

Teilatuari begiratzen badiogu, berriz, modu berezian landutako teilatu hegala ikusiko dugu. Zakur landuak ditu, baita molduradun erlaitza ere.

XVII. mendearen amaiera aldekoa da Okendo jauregia; herreriar barroko estilokoa da

Erdiko aldean eskuz landutako armarr handia dauka, Barrutia familiarena

Okendo etxearen barruko aldeak mota askotariko egoerak bizi izan ditu urtetan, egoitza noble izaera galdu ostean denetarako erabili izan dute-eta, hala nola: burdindegiko biltegi moduan, altzari denda moduan, egoitza politiko moduan... Eta, horrez guztiaz gainera, Arrasateko lehenengo zinematografo publikoa izan zen, baita bolaleku ere.



ARTIBOIA

Arrasateko lehenengo zinematografo publikoa izan zen Okendo jauregia.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko maiatzaren 30a / 66. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Emakume topaketa egingo dute datorren barikuan

UBANE MADERA

Zuiako Koadrilako emakumeek topaketa egingo dute Aramaion datorren barikuan, hilaren 6an. Gura duten emakume guztiek har dezakete parte, emakumeen elkarteetakoak izan edo ez.

Zuiako Koadrilak antolatuta, koadrilako herrietako emakumeek hitzordua dute Aramaion datorren barikuan, hilaren 6an, topaketa egiteko.

Arratsaldeko lehenengo orduan hasi eta iluntzera arteko ekitaldiak antolatu dituzte: hala, 16:00etan Aramaiora datozen emakumeei ongietorria egingo diete; horren ostean, 16:15ean, *Historia egin zuten emakume arabarrak* izeneko hitzaldia egongo da kultura etxean. Paloma Manzanos Arreal historialaria izango da hizlaria; kafea hartuko dute gero, 17:30ean; eta 18:30ean antzerkia ikusteko aukera izango dute. Txinere antzerki taldeak *Nora hoa neska?* lana antzertuko du. Iluntzean bukatuko



ITUR ZURI EMAKUME ELKARTEA

Arratsalde osoan ekitaldiak izango dituzte Aramaiora datozen emakumeek.

dituzte ekitaldiak eta 20:00etan nor bere herrira itzuliko da.

Iaz, gutxi gorabehera, laurogei emakumek hartu zuten parte Zuiako Koadrilak antolatuta-

ko topaketetan. Horrelako topaketetan parte hartzeko gonbidapena edozein emakumeri zuzendutakoa da, emakume elkarteren bateko kide izan edo ez.

Jon Agirre gogoan; 22 urte egin ditu kartzelan

Beste urtebetez, Jon Agirre preso aramaiarra gogora ekarriko dute haren senideek eta lagunek. Izan ere, kartzelan 22 urte bete

ditu aurten aramaiarrak.

Hala, bihar, zapatua, manifestazioa deitu dute. Manifestazioaren ostean, 19:00etan, ekital-

dia egongo da herriko kiroldegian eta gero, 21:00etan, bertso afaria egingo dute eskolan, herriko bertsolariak lagunduta.

1996A EZKERO KALEAN BEHAR ZUEN

Esandako moduan, 22 urte egin ditu kartzelan Jon Agirrek. 1981eko maiatzean atxilotu zuten eta, legearen arabera, 1996az geroztik kalean beharko luke, zigorraren hiru laurdenak bete-ta ditu-eta.

Gaur egun Huelvako kartzelan dago preso aramaiarra, Euskal Herritik 1.100 bat kilometro-ra. Hain zuzen ere, Jon Agirre-ren senideek eta lagunek behin eta berriro salatu izan dute presoari ezarri dioten dispertsio politika. Kartzela ugaritan egon da Jon Agirre 22 urteotan, 11-12 bat kartzelatatik; eta, betiere, Euskal Herritik urrun.



ARTXIBOA

1981ean atxilotu zuten Jon Agirre aramaiarra.



Santikurtz Eguna ospatuko dute domekan

Urteroko ohiturari eutsiz, etzi ekaineko aurreneko domeka izanda, Santikurtz Eguna ospatuko dute. Betiko moduan, Arangioko haitzetan dagoen ermitarainoko mendi-ibilaldiarekin hasiko da eguna. Behin ermitaraino iritsi eta gero, 12:00etan meza esango dute. Mezaren ostean hamarretakoa egongo da Santikurtzera igotzen diren guztiendako. Aixolako eta Arexolako gazteria arduratuko da horretaz. Salda bero eta goxoa emango dute barruak berotzeko eta txorizoa eta gazta inda-

rrak berreskuratzeko. Hori guttiori trikitalariak girotuta.

Eta eguraldiak laguntzen badu eta herritarrak bazkaltera geratzen badira, bazkalostea luzatzeko aukera egongo da, erro-meria eta guzti.

AUTO BARIK, MESEDEZ

Hori bai, antolatzaileek eskatu dute ahal izanez gero, behintzat, jendea oinez igo dadila, eta ez autoz. Izan ere, azkenaldian gero eta jende gehiago dabil ohitura hori hartzen.

LABUR

Arantza Iturbe idazleak amatasunaren gaineko berbaldia egingo du

Datorren eguenean, ekainaren 5ean, Arantza Iturbe idazleak berbaldia egingo du Aramaion. Txirritola Euskara Elkarteak antolatu du. *Ai Ama* da berbaldiaren izenburua, eta idazleak berak izandako amatasun esperientzia izango da gaia. Besteak beste, amatasunaren gaineko hainbat ikuspuntu landuko ditu. Hain justu, berbaldia izen bereko liburuan dago oinarrituta. Eta antzezlanare ere egin dute Arantza Iturberen lan horretan oinarrituta. Berbaldia kultura etxean izango da, 19:30ean hasita.

Areto futboleko emaitzak eta Bareako Pilota Txapelketa

Areto futboleko, gazte mailako taldeak 0-5 galdu zuen Oriamendi Lezaoren kontra. Bihar, zapatua, Gasteizen jokatu du Marianistas-en kontra. Partidua 12:15ean hasiko da, Marianistas Ikastetxean. Eta Pilota Txapelketaren emaitzak honakoak dira: Ruiz de Azua-Rioja 12 / Raul-Ekain 22; Axpe-Serrato 18 / Senar-Balanzategi 20; Iker-Igor 22 / Asier-Aitor 11; Bingen-Iñaki 22 / Manex-Markel 20. Gaur honakook jokatu dute: Xabi-Andoni / Danel-Txomin; Serrato-Rioja / Raul Ruiz de Azua; Ekain-Balanzategi / Senar-Axpe; Xabi-Ander / Asier-Aitor eta Manex-Markel / Iker-Igor.

Gehiengo osoa eskuratu du EAJ-EA koalizioak, baina boto gutxiagorekin

UBANE MADERA

Lasaitasuna eta normaltasuna. Horiexek izan dira Aramaioko hauteskunde egunaren ezaugarri nagusiak. Guztia zaintzen ibili ziren mahaikideek esan zigutenez, 09:00ak inguruan sartu zituzten aurreneko botoak, eta mahaikideenak izan ezik, 19:55ean azkenak.

Herritarrak poliki-poliki joan ziren San Martin Eskolako hauteskunde-mahaietara. Horrela-koetan ohi denez, eguerdi partean joan zen jende gehien botoa ematera. Adibidez, 12:00ak pasatxo zirenean oletarrak iritsi ziren, Udalak euren ipinitako autobusean. Eta, goiko argazkian ikusten denez, orduan bai bete zela eskola! Ilarak eta guzti sortu zituzten.

Horrez gainera, ez zen bestelakorik izan. Mahaiak itxi zituztenean jende dezente batu zen, botoen zenbaketarako. Batez ere, hAMALAU taldeko kideak eta haien lagunak. Eta 23:00ak ingururako guztia bukatuta zegoen. Bestetan baino luzexeagoa izan da aurtengoa; izan ere, bestetan baino balio gabeko boto gehiago egon dira, eta guztiak banan-banan sinatu egin behar izan zituzten. Balio gabeko botoen gainean esan beharra dago hAMALAUrenak aparte zenbatu zituztela.



Oletarrak iritsi zirenean, ilarak eta guzti sortu ziren eskolan; bestela, herritarrak apurka-apurka joan ziren bozkatzera. Zenbaketa arazo barik egin zuten.



EAJ-EA
MERTXE MONDRAGON



EAJ-EA
Jesus Agirre



EAJ-EA
Roberto Aginagalde



EAJ-EA
Andres Osinaga



EAJ-EA
Patxi Aiausti



EAJ-EA
Jose Goronaeta



EAJ-EA
Balentin Arriaran




EAJ-EA
Patxi Untzueta



EAJ-EA
Aitor Abarrategi

UDAL HAUTESKUNDEAK



2003ko errolda: 1.264 / Abstentzioa: 276 (%21,8)



EAJ-EA
Iñaki Nafarrate

Lurralde Lareeta (*Tierras Esparsas*) izeneko koadrilako zerrendaburu aurkeztu zuen EAJ-EA koalizioak Iñaki Nafarrate. Eta koalizio horrek botoen %51,23 (11.428 boto) lortu ditu. Guztira hiru batzarkide dagozkie. Hortaz, orain arteko alkatea batzarkide izango da.

HAUTAGAIENIRITZIA

MERTXE MONDRAGON / EAJ-EA

"Bukatu dugu, eta pozik gaude lortutakoarekin. Hortik aurrera, lehenik eta behin, eskerrak eman gura dizkiegu EAJ-EAri botoa eman diguten aramaiar guztiei.

Eta gero, nahi nuke esan gure aldetik ahaleginduko gara gauzak ahalik ondoen egiten; eta lanerako gertu gaudela".

JON URIBARREN / HAMALAU

"Legalizazioa, debekua, papeletarik eza... Eta guztiaren gaineratik, momentu gogorrean bi zinegotzitik hirura pasatu gara.

Urte luzetan egindako lanak fruituak eman ditu. Mila esker hAMALAU taldean konfiantza jarri duzuen guztioi. Guztion ahaleginarekin aurrera egin dugu eta orain ere hala egingo dugu. Lanean jarraituko dugu Aramaioren eta Euskal Herriaren alde, herritarren erabakia delako. Inoiz baino presentzia handiagoa eskatu du guretako herriak. Errespetatuko ote du EAJ-EAK herriaren hitza?"

MARIO ONAINDIA / PSE-EE

"Lehenik eta behin esan beharra dago oro har Euskal Herrian, baita Aramaion ere, herritarren esku-hartzeak gora egin duela, eta hori inportantea da.

Hortik aurrera, Aramaion botoa eman digutenei eskerrak eman nahi nizkieke. Eta EAJ-EA koalizioa zoriondu egin nahi dut eta zorte ona opa nahi diot hurrengo urteotan daukaten lana egiteko.

Eta, bukatzeko, prentsari eskerrak eman nahi dizkiot, nirekin horren ondo portatzearen".

ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

	2003	1999
EAJ-EA	6	7
HAMALAU	3	2
PSE-EE	0	-
PP	0	0
UA	0	-

ERRETRATUZAHARRA

Kalejira Zigorrolan, San Isidrotan



Orain dela pare bat aste Zigorrolako San Isidro jaiak izan genituen berbagai. Eta oraingoan ere hara bueltatuko gara. Ikusten duzuenez, argazki eder askoa utzi digute San Isidro elkarteko hiru lagunek. Jaietako kalejira erakusten digu erretratuak. Hortxe ageri dira San Isidrotan *saltsa* ipintzen zuten pertsonaia nagusiak: *Angiozarko itsua* soinua jotzen; haren ondoan Felipe Vitoria jazz-bandista; astoa, gaseosa, ardoa eta bestelako freskagarriak eramateko bidoiekin; astoaren ondoan, Pedro Agiriano, Altzibar baserrikoa; aurreko aldean, berriz, eskobarekin doana Zaburdi baserriko Bixente Urrutia da. Daraman eskoba dantzarako zen. Hala, musikak agintzen zuenean, dantzari guztiak makurtu egin beharra zuten, bestela, eskobakada!

Gure berriemaileek kontatu digutez, kalejira eta dantza ederrak egiten zituzten horiek guztiak lagunduta. Felipe Vitoriak, adibidez, jazz-bandarekin laguntzen zion soinu jotzaileari. Denetarik jotzen zuen, gainera: txapak,

bonboa, danborra, kriskitiinak...

Aurrekoan kontatu genuenez, besteak beste, futbol partidua jokatzen zuten San Isidrotan, auzoko gazteek nagusien kontra. Hasieran, 30eko hamarkadan, Arbe baserriaren lursailetan jokatzen zuten, Mintzetalden; geroago Maalan jokatzen hasi ziren;

eta 40ko hamarkadatik aurrera, berriz, Iturripen. Bitxikeria moduan zera kontatu digute: behin, auzoko emakumeek futbol taldea osatu eta gizonen kontra jokatu zuten; Axerikua zelaian jokatu zuten partidu hura. Bestalde, bai partidura bidean baita partidutik bueltan ere, Monte eta Mendikute

tabernetan geratzea *derrigorrezkoa* izaten zen; pentsa, astoak eta guzti sartzen ziren barruraino!

Argazkia: Simon Arregi

Informazioa: Pablo Barrena, Benito Barandiarán eta Simon Arregi
Urtea: 40-50eko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Portaloia, arrasatearren topaleku

Ondoko argazkia J.M. Velez de Mendizabalen *Bizi izan juat* liburutik hartu dugu. Liburuan kontatzen duenez, Union Cerrajera lantegiko ordutegiak baldintzatzten zuen, neurri handi baten, Arrasateko erdialdeko giroa.

Portaloitik Biteri kalea gurutzatu eta bertan zegoen lantegia. Geroago, baina, trenaren ordutegiak ere baldintzatu zuen kaleko giroa.



≈ 1926 San Frantzisko eliza eta Portaloiko arkuak dira urteen joan-etorriari hobeto aurre egin dieten eraikinak.



2003 Gaur egun lantegien ordutegiak kaleko jendearen zenbatekoa baldintzatu beharrean, errepidean dabilzan auto kopurua baldintzatzen dute.

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

EGUZZKIGRAF

inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



arrasate musikal



Nafarroa etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 06 83 - 943 77 05 40

- Instrumentuak
- Taldeak
- Hezkuntza berezia
- Musika
ordenadore bidez
- Baleta

4 urtetik aurrera.
Helduendako eskolak.

Matrikulazio epea zabalik:

Maiatzaren 20tik ekainaren 20ra arte.

Arratsaldeko 5 etatik-8etara.



Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



%96 Meriva

Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeetarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu. Opel Meriva berria da.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es